

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Historian zehar, lurrikara ugari eta larriak ezagutu ditugu herrialde askotan. Hauen eraginez, milaka hildako edo gehiago egon dira. Horregatik, zerbait egin behar genuela antzeman eta elkarren artean pentsatzen hasi ginen. Nola saihestu dezakegu arazo hau? Zer egin daiteke? fenomeno naturalak ezin ditugunez gelditu, soluzio bat bilatzea erabaki genuen.

Gure proiektua **pultsera berezi** batzuk sortzean datza. Hauek, identifikazio pultserak dira eta GPS baten bitartez funtzionatzen dute; mugikorretan aurki daitezkeen ubikazio aplikazioak bezala. **Zertarako?** Ba, lurrikararen bat egongo balitz pertsonak non dauden identifikatu ahal izateko. (lur azpian, harri azpian...)

Bereziki arrisku geografikoen eragina duten lurraldeetan erabiliko dira eta bertako biztanleek eramango dute soinean. Adibidez: Japonian, Txinan, AEB-en...

Pultserak larrialdi kasuetan aktibatzen dira bakarrik sismologia agentziek abisatzerakoan, herritarren intimitatea babestuz. Eta gainera kokapena galduz gero, lurrikara gertatzean pultsera apurtuz gero, azken lokalizazio puntua hartuko dute kontuan pertsonak bilatzerakoan.

Honek laguntzak eta onurak ekartzen dizkie: erreskatatze, polizi, suhiltzaileei ...

